

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA

2019ko laugarren hiru hilabetealdiari (irailatik abendura) dagozkion ur-hornidura, estolderia eta arazketa zerbitzuengatikoko tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta tasen ordainketa

2019ko laugarren hiru hilabetealdiari (irailatik abendura) dagozkion ur-hornidura, estolderia eta arazketa zerbitzuengatikoko tasa ordaindu behar dutenen erroldak egin eta jendaurrean jarriko dira hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, iragarki honen bidez, erroldaren barruko likidazioak taldeka jakinarazten dira, Arabako Zergei buruzko Foru Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Jendaurrean jartzekoa den erroldan jasotako likidazioaren aurka, interesdunek berrastertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete lehendakariari, ordainagiriak kobratzen diren egunetik hilabeteko apean.

Ordaintzeko epea

- a) Ordainagiriak kobratzeko data: 2019ko abenduaren 16an.
 - b) Premiamenduko betearazte bidea hasteko data: 2020ko urtarrilaren 17tik aurrera.
- Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da aditzera.

Ondategin, 2019ko azaroaren 27an

Lehendakaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA